


## Familien erantzunen laburpena

2020-2024ko plan estrategikoa iraungitzear egonik, maiatzean, Plan Estrategiko berrirako ekarpenak egiteko eskatu genizuen familiei. Jarraian, erantzun horien laburpena aurkituko duzue.

[Familien erantzunen laburpena](#)



## 2024/2025 ikasturterako zerbitzuetan izen-ematea

### Garraio-zerbitzua

Datorren ikasturterako garraio zerbitzua antolatzen hasiak gara. Gogoratu, izen-ematea urtero egin behar dela, erabiltzaile berria izan ala ez. Ibilbideak eta geltokiak izena eman duten erabiltzaileen beharren arabera egiten dira. Zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusiz gero, [galdetegi hau](#) **ekainaren 21a** baino lehen erantzun beharko da. Edozein zalantza edo argibidetarako [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera zuzendu.



### Goizeko zaintza

Egunero, ikasturte osoan, 8:00-9:00 orduetara Agerialdeko eraikinean zerbitzu hori eskaintzen da. Izen-ematea **ekainaren 28ra** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

### Arratsaldeko zaintza

Irailean zehar, klase orduak goizetik soilik direnean, 14:30-16:30 orduetara zaintza eskainiko da, ikasle kopuru minimoa osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, bete mesedez [galdetegi hau](#) **ekainak 28rako**.

### Jangela

Datorren ikasturteko jangelako zerbitzua antolatzeko, familien beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, hori dela eta, mesedez, [galdetegi hau](#) **ekainaren 28a** baino lehen betetzea eskatu nahi dizuegu.

## Badatoz Santixabelak!

Aurten ere **uztailaren 1ean** GINKANA (LH1-4 bitarteko ikasleak) eta ERRONKA (LH5-DBH2 arteko ikasleak) mundialak antolatzeke asmoa dugu ikasleentzat. Horretarako, jakina, ezinbestekoa da zuen partaidetza. Gure antolakuntza errazte aldera, eskertuko genuke izena ematea bi bide hauetakoren baten bidez:

-Zuen ikastetxean duzuen izen-emate orrian izena eta ikasmaila adieraziz.

-Korreo bidez [santixabelak.umeen.eguna@gmail.com](mailto:santixabelak.umeen.eguna@gmail.com)

**Izena emateko azken eguna ekainaren 19a izango da.**

Erronkan parte hartuko dutenek aldatzeko arropa eraman beharko dute.



Usurbilgo Udala

## Xake tailerra Sutegi liburutegian

**Ekainaren 26an** goizeko 11:30etik 13:00etara, Sutegi Liburutegian, **HASTAPEN tailerra:** Xakean ikasi edo/eta lehen pausoak eman nahi dituen edonorentzat.

**Ekainaren 27an** 11:30etik 13:00etara, Sutegi Liburutegian, **HOBEKUNTZA tailerra:** Xakean sakondu nahi duen edonorentzat. Irakaslea: Breogán Estévez.

Izen-ematea: Liburutegian. [Kartela](#)



## AISIALDIRAKO eskaintza 2024-25

Ziromolan 2024-25 ikasturterako prestatu den [eskaintza](#) bidaltzen dugu: egonaldiak, formakuntzak, Aisiola, eta abar.

Egitasmoetan izena emateko [esteka honetan](#) topatuko duzuen galdetegia bete behar duzue, eta horretarako **azken eguna ekainaren 28a** izango da.



# HAUR-HEZKUNTZA

## Bilera deialdiak

### ❖ 2-3 urteko familiak

24/25 ikasturtean zuen seme-alaba HH3 urteko gelan egongo da eta bertako familiei harrera eta egokitzapen prozesua azaltzeko asmoz, **ekainaren 24an, astelehena, arratsaldeko 16:30etan** egingo den bilerara deitzen zaituztegu Ageri alde eraikinean, HH3ko gelan.

Bertan tutoreek egokitzapenaren inguruko azalpenak emango dizkizue eta zuen zalantzak eta galderak ere argitzeko aukera izango duzue bertan.

Jangelara joango diren haurren familiekin 17:30etan bilera txiki bat egingo da.

Gogoratu bilera honetan ez dela zaintza zerbitzurik izango.

Bilerara etorriko zaretenok bete [galdeketa hau](#) **ekainaren 21a** baino lehen.



### ❖ HH5eko familiak

**Ekainaren 18an**, asteartea, arratsaldeko **17:00etan**, Agerialde eraikineko 2. solairuan, **2024/25 ikasturtean LH1. mailan hasiko diren haurren familientzako** informazio-bilera egingo da.

## HH5-eko irteeraren kobrantza

**Ekainaren 17an**, Debara egindako irteeraren kobrantza egingo da. Denera **6,15 €** izango da, autobusaren kostuari dagokio.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Ur festa

Ekainaren 21ean, ostirala, LH-ko ikasleek ur festa egingo dugu. Ikasleak bainujantzia soinean eta toalla ekarri beharko ditu. Etxean eguzkitako krema emanda etortzea komeni da.

Hamaiketako berezia egingo dugu eta, horretarako, ikasle bakoitzak edalontzi bat ekarri behar du.



## Irteera

Ekainak 17an, astelehena, LHko ikasleak goizeko irteera egingo dute Usurbilen. Motxila txiki batean hamaiketakoa eta ura ekarri beharko dute. Etxean eguzkitako krema emanda etortzea komeni da.



## LH 2ko irteeraren kobrantza

**Ekainaren 17an**, Txurrukara egindako irteeraren 3. kobrantza egingo da. Denera **16,90 €** izango da.


- Autobusa: 7,20 €
- Egonaldia: 1,70 € (osatzeko falta zena)
- Tailerrak: 8,00 €



## Noten buletinak

LHko 4., 5. eta 6. mailetan 3. hiruhileko buletinak ekainaren 21ean igoko dira Alexia aplikaziora eta azken notak ekainaren 24an igoko dira.

LHko 1., 2. eta 3. mailetan azken notak ekainaren 20an banatuko dira.



## LH 4ko familiei zuzenduta: LIBURUTRUK 2024/2025

### ZER DA LIBURUTRUK?

Sistema honen helbururik nagusia testu-liburuak ahal den ikasturte gehienetan berrerabiltzea da. Hitz Aho Guraso Elkartea eta Ikastolaren artean koordinatuz egiten da. Ikastola liburuak eskatu, familiei kobratu eta ekaineko azken egunean liburuak jasotzeaz arduratzen da. Bestetik, Hitz Aho Guraso Elkartea liburuak sailkatzeaz arduratzen da. Sistema hau erabiltzeko arrazoiak:



1- Seme-alaben heziketa hobetzea: zenbait balore garatzen lagunduko diegu; besteekiko elkartasuna, guztien gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta inguruarekiko errespetua,...

2- Ekonomikoa: parte hartzen duten familiek liburuetan gutxiago gastatuko dute. Berrerabilgarriak diren liburuen zati bat ordaintzen delako.

3- Ekologikoa: liburuak berrerabiltzeak paperaren kontsumoa eta sortutako zaborra gutxitzen du.

Sistema hori LH5. mailatik gorako ikasleentzat da. Beraz, **ikasturte honetan LH4. mailan dagoen norbaitek ez balu parte hartu nahi, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera mezua idatzi beharko luke. Horretarako epea GAUR amaitzen da. Gainontzeko mailetakoen kasuan, mezua aldaketarik balego soilik idatziko lukete.**

**Gogoratu, behin Liburutruken sartuz gero ezingo dela irten, bestela, ordura arte baliatutako hobarien itzulketa egin beharko litzaioke ikastolari.**

Antolaketa horren baitan, hurrengo ikasturteen amaieran, liburuak Ikastolan utzi beharko dituzue eta hurrengo ikasturteetako liburuak eskuratzeaz Ikastola eta HITZ-AHO arduratuko dira. **Berrerabilgarriak diren liburu GUZTIAK egoera onean itzuli behar direla gogorarazten dugu, bestela, falta diren liburuak kobratu egingo ditugu.**

**Ekainaren 14rako** parte hartuko ez duela adierazten ez duen familia guztiei, **60 €ko fidantza** kobratuko zaie ekainaren 16an eta gerora ez zaie bueltatuko, ez duela parte hartu nahi esaten badu ere.

## Arropa galdua

Agerialdeko sarreran dagoen arropa galduen txokoa beteta dago eta hiruhileko azkeneko astean, bertan dagoen arropa Caritaseko edukiontzira eramango da.



# DBH

## DBH 4ko ikasleei zuzendutako informazioa

DBH4. maila bukatzen duten ikasleek Chromebooka erosteko aukera izango dute 30€ gehiagoren truke. Hala egin nahi ez duenak, ikastolan itzul dezake eta hasieran jarritako fidantza bueltatuko zaio. Itzuli ahal izateko, gogoratu, hitzarmenean sinaturikoa, hau da, gailuak egoera onean egon behar duela; ez da pegatinarik, markarik,... onartuko; pantailak, teklatuak, bisagrek,... egoera onean egon behar dute. Ikastolan itzultzea erabakitzen baduzue, **ekainaren 18an dena gainditu dutenek eta ohikoetara doazenek ekainaren 20an, IKT departamenduan erakutsi beharko dute gailua eta kargadorea horien egoera egiaztatzeko.**



**Gaur da** zer egin behar duzuen adierazteko [galdetegia](#) betetzeko **azken eguna**.


## DBH 4ko gurasoei zuzendutako oharra

Guraso agurgarria:

Gogorazi nahi dizuegu, hurrengo asteko ostegunean, ekainak 20, txangoa egingo dugula Andatza mendira. Txango horretan kanpaldia egingo dugu Andatza mendian, han gaua pasako dugu eta hurrengo egunean, goizean goiz, abiatuko gara ikastolaruntz. Agerialdeko eraikineko jangelan gosaria prestatzen izango ditugu hainbat irakasle, baina zuen laguntza ere asko eskertuko genuke. Hori dela eta, zalantzarik gabe bertara zaitetzte!

Eskerrik asko!

DBH4ko ikasleak



## LIBURUTRUK 2024/2025 antolaketa

Datorren ikasturteko liburuen antolaketa egokia egiteko, **gela bakoitzeko 3 bolondres** beharko ditugu. Mesedez, **idatzi gaur** [hitzaho@udarregi.eus](mailto:hitzaho@udarregi.eus) helbidera izena emateko. Lehenengo bilera, ekainaren 27an, 15:00etan, egingo dugu ikastolako eraikin gorrian. **Bolondres nahikorik ez balitz egongo, zozketa egingo da.**

Guraso elkartea

